


GAZTE NAIZ

EMAKUMEAK NORA? ARAZOBAT



IDAZKITZA

"Gazte naiz" orri hau ez omen da egoki gazteentzat, illuna omen da. Iritzi honek ba du bere indarra, neska askoren iritziak dalako, gure giroaren iritziak dalako, eta honek kezkatu egin nau. Noiz arte gure emakumeak pentsakera horren menpean egon behar?

Zer gertatzen da, ehunka eskoletatik ateratzen diran neska hoietatik, bakanka ez ba-da, danak kaskarinkertan eta uskeritan beren orduak botatzen dituztela? Nola sentiarazi, kampotik bezela itxura apaintzen duten bezela, ba-dugula beste zati bat, zaindu ta biziarrak behar deguna? Ta batez ere nola erakutsi gungandik gizartiak espero duana ez dugula lortuko gure burua ideia kaskarinez beterik ba daukagu?

Emakumeak bere burua zaindu behar du, ta ondo, ta gaurko aurrerapen guztiaz ballatuta gainera, ta honek izan behar du bere kezka bat; baña ez bakarrik! Emakume bat, ez da pixki edo jostailu polit bat. Gure izaerak, hori baño gehiago eskatzen du, ta "Karmelet" hoiek nabaltzen ez ba-dute behar hau, beren arimen zati horri atea itxi diotelako da, ta konturatu ere ezin dira zenbat interesatego ta bateago izango litzakean beren biziera beste kezka hoiel emanak ba-legezke. Uste al dezute, emakumeak, S. de Beauvoir, Madame Nerhu, Kroupskaia edo emakume hoietako edozein bat kezkatuko denik ia tema bat biurtu arte, jantziaren batengatik, edo ta halako lagun batek, berak erosi ezin dezakeen pitxiren bat erosi duelako, edo kotxe bat dala-ta, edo biaje bat, edo horrelako jainera joateko inbitazio bat lortzeko, edo... (eta gure artean nik ikusten dugu norañoakoak diran kezka hauek!). Igo galtezen pisika bat, aberastu dezagun gure nortasuna ta ez dezagule ahaztu, A. Maurais'en iritzi eder hura bere ematearen alde: "Ez nitzake gaur ezer, nere ematearen laguntza gabe".

Nik uste det arrotasuna falta zaigula, ta gure elburua gizonen eskutan (eta gehienetan, nolako gizonen eskutan!) jartzen dugula, ta bere "aberastasuna" elikatzen. Gizonen uztarrak, zertarako? Zergatik uztarririk? Geu gera errudun, ez gera ta gauza izan, behar degun mailan jokatzeke ta hona zertara iritzi geran: gure balioa gutxietea!

Gutxitan pentsatu dugu nolako eragin ia den dezakegun gure soziedadean emakumeak! Eta orain arte? Gehienetan senar idealisten bat arkitzen ba-dugu, honela edo horrela gure xarma guztiak erabiltzen ditugu gizon horrek bere ideiak utzi ta txikitertan nabaztu ta ondatzeko. Hau da orain arteko emakume gehien jokiera. Eta hau ez! Giroak eta edukazioa aurka ba-daude ere, gogor egin dezagun eta billatu, han eta hemen gure izaerak zertarako dituen doialak eta ispilluan gure irudi apaña ikusten dugun bezela, inguruan ikusi dezagun gure eginkizunaren irudia, gure ekarriak edo aportazioak. Horrenbeste egitekorik dugu gure herrian, ba dugula aukera; "elite" on bat behar du gure herriak; eta zergatik ni ez, zergatik zu Karmelet alai hori ez? Emakume eder bat (ez "intelektual" sentidu txarrean antutako antzeko bat) ardura haundiko lan baten buru ikusi izan duzunean ez ote duzu inbiri sakon bat nabaitu? Nik, bai! Eta zergatik ez ote gera gu izango hoietako bat? Zergatik?

MADDI

Gure artean bizi diran aur subnormalak edo buruz ondo jantzi-bageak gure kontzientziari dei egiten diote. Ogeigarren gizaldiko gizonak jakin bear du gorputzeko bearrak bakarrik asetzen dituan bitartean ez dagola benetako aurrerapenik. Aurrerapena espiritu aldeko bearrakin lotua dago batez ere. Eta kristau gizartearen eginbearteko bat da aur oieri ta beren gurasoeri ez bear onetan laguntzea. Naiz buruz eta gorputzez osatuak ez izan, gu bezelaxe personak dira, ta beraz, anima ta eskubide batzuen jabe. Gure egitekoa da ba, persona mallako bizibide bat aur oieri eskeintzea.

Mundu guzian, bi ordutik bi ordura, aur subnormal edo buruz ondo jantzi-bageko bat jaiotzen da. Europa-ri begira, berriz, eun aurreratik iru ez omen dira irixten amabi urteko mutill-koskor batek duan argitasuneran. Eun oietatik, beste iru zazpi urteko aurren mallan gelditzen dira; ta eunetik batek ez du iru urteko ume baten ezagubiderik lortzen.

Aur auetako bakoitzaren inguruan beti arkitzen dira gutxienez beste lau edo bost lagun arazo oneri lotuak. Batez ere gurasoak eta senideak naigabe onekin asko supritzen dute, ta orrela, ingurua pixka bat miatuz ikusten degu prolema onen astuntasuna.

Gizarte baten elburua bera osatzen duten personeeri beren doialak alik eta geien landu ta getizea da. Bestetik, buruz ondo jantzi-bageak

ere, lenago esan bezela, personak dira ta persona baten eskubideak ez dira onen doiaez neurtzen. Beraz, aur oiek beste edozein personaren eskubideak ditute. Baiñan aur auen eskubideak ezagutzea gure eginbeartea arkitzea da.

Buruz ondo jantzi-bageak

—Eziketa berezia.

—Eleiz bizitzan parte artu al izate.

—Profesio aldeko preparazio bat biarko egunean berari dagokion lan bat eginaz gizarterako pixu bat ez dedin.

—Dibersio egokiak, eskatzen ditute.

Aurzaroa igaro ta urteetan aurrera dijoan eran erritar bezela bizi bear du ta ez basamortuko itxuran. Beraz eskubide auri buruz nork erantzun bear?

Lenegoz: Gurasoak.

Bere prolema izkutatze bearrean, jatorki jokatu bear dute arazo oni erantzuteko sortu diran elkarte ta erakundeekin artu-emanan izanaz.

Bigarren: Gizarteak.

Gipuzkoa'n ba dago gai onetan zeozer. Urrengo zenbakian azalduko dizugu orain arte zer egin dan, noraño iritzi geran gurean arazo oni buruz.

MIREN OLARREAGA

ASTETIK ASTERA

Hauzo-lan eta «Aillu»

Gure herriaren nortasunaz maiz hitzegiten da gaur.

Zerk ezagutarazten du gure herria? Zein gauzak osaten dute gure herri-nortasuna?

Ziplo botako gurean erantzuna, oso ezaguna da; hizkuntza.

Baiña erantzun hori ez da gaur txit maitatua; eta beste batzuk agertu dira. Ba omen dugu besterik ere hizkuntzaz gain, edo hizkuntza baiño funtsezkoagorik ere. Gure «izakera» batez ere.

Izakera berezi hori zertan ote datzan gutxitan azaltzen da. Mota guzietako euskaldunak diran ezker, ez da oso nabarmen agertzen nortasun horren ezagugarri nagusia nola izan ditekian. «Izakera»... Zein izakera, hain zuzen? Baserritarrena? Erribera'koa? Ez dira gauza bera...

«Ohiturak» omen ditugu harrigarri berezi eta jator. «Hauzo-lan» deritzana, esate baterako, gure «izakera» horren ezagugarri bat omen da.

Irakurleak ba dakite zer dan: danentzako obra bat, esate baterako, egin behar danean, hauzoko gu-



ziak alkartzen dira, eta danen artean, alkarri eutsita eta lagunduta, egiten da lana. Lan-mota horri «hauzo-lan» esaten diogu euskeraz. Eta hau omen da, «izakera»-zaleen ustez, hizkuntza bera baiño bitxia-gor, bereziago eta «nor-garri»-ago.

Hau, ordea, ez da egia.

Gure ohitura zaharrak ez dira askotan izaten nun-nahiko ohitura zaharrak baizik. «Hauzo-lana», bide hortan, ez da euskaldun ohitura bat, internazionala baizik. Eta berdin ere hainbestetan aipatzen dan gure lurren jabetasuna; gure lurak (Nafa-

rrua'n gaur ere) ez baitziran pertsona batenak edo besterrenak, herrikoak baizik.

Hau guzia, esate baterako, xeheki, puntuz puntu, Peru eta Bolibia'ko indio-herrietan egiten zan gaur arte.

Hortara atolatzen ziran herriek, «aillu» izena zuten ketxueraz. (Ketxura indioen hizkuntza da), «Aillu» batean lurra «aillu»-ko lagun guziena zan, eta ezin zitekean saldu. Inken lurren legea garbi zegoen puntu huntaz: lurrak herriarenak dira.

Are gahiago. «Aillu» batek danentzako obra bat egin behar zuenean (ura ekartzeko ubide bat, eman dezagun), lan hori danentzako zan ezker, «aillu»-ko guzien artean egiten zan. Eta «Hauzo-lan» horrek ba zuen ketxueraz, euskeraz bezela, izen berezi bat: «minka».

Gaurko egunean Peru'ko ketxuak atzeraka ari dira, hizkuntzaz eta ohituraz. Baiña hauzo-lan hori bizi-bizirik omen dago oraindik Paucartambo eta Acomayo'ko probintzietan; baita danen lurra duten «aillu» horiek ere.

Gauza hauek ezagutzea komeni da.

Berez ditzagun bederen jatoriasuna eta antziñatasuna, nortasuna eta zahartasuna.